| **2010EKO APIRILAREN 29AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 29 DE ABRIL DE 2010.** |
|---|---|
| ============================ | ============================ |
| **B I L D U T A K O A K** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi Jn.

| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)
Aitor Soloeta Eraso (EAJ-PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ-PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Álvaro González Pérez (EAJ/PNV)
María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (P.P.)
Jesús Toca Toña (P.P.)
Iñaki Gamero Delgado (P.P.)
Raquel González Díez-Andino (P.P.)
Josu Ahedo Ruiz (P.P.)
Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)
Jorge Grases García (P.P.)
Jone Ruiz de Eguilaz Salazar (P.P.)
Álvaro Rodríguez Ratón (P.P.)

Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)
Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)
Mercedes Angulo Ordozgoiti (P.S.E.-E.E.)
José Luis Cámara Ricondo (P.S.E.-E.E.)
Manuel Basanta Santiago (A.)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko bederatziak eta hogeita hamarrean, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas y treinta minutos de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Ángel Corcuera Ruiz.

Koldo Iturbe Mendilibar Jn. Alkateordeak bileran ezin zela izan jakinarazi zuen.

Excusó su asistencia el Teniente de Alcalde don Koldo Iturbe Mendilibar.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**54.- 2010EKO MARTXOAREN 25EAN IZANDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

**54º.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 25 DE MARZO DE 2010.**

2010eko martxoaren 25ean Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak lehen deialdian izandako ohiko bileraren Akta onartu zen.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada en primera convocatoria por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 25 de marzo de 2010.

**OGASUN, EKONOMIA, GIZA BALIABIDE ETA KONTUAK**

**HACIENDA, ECONOMÍA, RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS**

**55.- . 1450, 1771, 1772, 1996, 1997, 1998, 2047, 2048, 2049 ETA 2076/2010 ZENBAKIDUN ALKATETZA-LEHENDAKARITZAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA, KREDITU OSAGARRIEN BIDEZ, AURREKONTUA ALDATZEN DUTENAK.**

**55º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 1450, 1771, 1772, 1996, 1997, 1998, 2047, 2048, 2049 Y 2076/2010, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuetako Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Ondoko Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretuen jakinaren gainean izatea, Kreditu Osagarrien bidez aurrekontua aldatzen dutenena:

1450 Dekretua, 2010eko martxoaren 11koa, 67.000,00 eurokoa.
1771 Dekretua, 2010eko martxoaren 25ekoa, 43.023,53 eurokoa.
1772 Dekretua, 2010eko martxoaren 25ekoa, 16.074,00 eurokoa.
1996 Dekretua, 2010eko apirilaren 12koa, 9.620,00 eurokoa.
1997 Dekretua, 2010eko apirilaren 12koa, 26.000,00 eurokoa.
1998 Dekretua, 2010eko apirilaren 12koa, 60.000,00 eurokoa.
2047 Dekretua, 2010eko apirilaren 12koa, 40.000,00 eurokoa.

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Créditos Adicionales:

Decreto nº 1450 de 11 de marzo de 2010 por un importe de 67.000,00 €.
Decreto nº 1771 de 25 de marzo de 2010 por un importe de 43.023,53 €.
Decreto nº 1772 de 25 de marzo de 2010 por un importe de 16.074,00 €.
Decreto nº 1996 de 12 de abril de 2010 por un importe de 9.620,00 €.
Decreto nº 1997 de 12 de abril de 2010 por un importe de 26.000,00 €.
Decreto nº 1998 de 12 de abril de 2010 por un importe de 60.000,00 €.
Decreto nº 2047 de 12 de abril de 2010 por un importe de 40.000,00 €.

2048 Dekretua, 2010eko apirilaren 12koa, 100.000,00 eurokoa.
2049 Dekretua, 2010eko apirilaren 12koa, 146.104,11 eurokoa.
2076 Dekretua, 2010eko apirilaren 12koa, 77.000,00 eurokoa.

Decreto nº 2048 de 12 de abril de 2010 por un importe de 100.000,00 €.
Decreto nº 2049 de 12 de abril de 2010 por un importe de 146.104,11 €.
Decreto nº 2076 de 12 de abril de 2010 por un importe de 77.000,00 €.

**56.- 1449, 1472, 1473, 1474, 1477, 1607, 1611, 1630, 1679, 1680, 1681, 1682, 1684 ETA 1702/2010 ALKATETZA-LEHENDAKARITZAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA, KREDITUAK BIDERATUTA AURREKONTUA ALDATZEN DUTENAK.**

**56º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 1449, 1472, 1473, 1474, 1477, 1607, 1611, 1630, 1679, 1680, 1681, 1682, 1684 Y 1702/2010, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuetako Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Ondoko Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretuen jakinaren gainean izatea, Kredituak bideratuta aurrekontua aldatzen dutenena:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Habilitaciones de Crédito:

1449 Dekretua, 2010eko martxoaren 25ekoa, 52.898,51 eurokoa.
1472 Dekretua, 2010eko martxoaren 11koa, 1.100.101,23 eurokoa.
1473 Dekretua, 2010eko martxoaren 12koa, 799.898,78 eurokoa.
1474 Dekretua, 2010eko martxoaren 11koa, 2.041.097,21 eurokoa.
1477 Dekretua, 2010eko martxoaren 11koa, 1.585.000,00 eurokoa.
1607 Dekretua, 2010eko martxoaren 16koa, 1.225.000,00 eurokoa.
1611 Dekretua, 2010eko martxoaren 16koa, 46.810,64 eurokoa.
1630 Dekretua, 2010eko martxoaren 18koa, 506.000,00 eurokoa.
1679 Dekretua, 2010eko martxoaren

Decreto nº 1449 de 25 de marzo de 2010 por un importe de 52.898,51 €.
Decreto nº 1472 de 11 de marzo de 2010 por un importe de 1.100.101,23 €.
Decreto nº 1473 de 12 de marzo de 2010 por un importe de 799.898,78 €.
Decreto nº 1474 de 11 de marzo de 2010 por un importe de 2.041.097,21 €.
Decreto nº 1477 de 11 de marzo de 2010 por un importe de 1.585.000,00 €.
Decreto nº 1607 de 16 de marzo de 2010 por un importe de 1.225.000,00 €.
Decreto nº 1611 de 16 de marzo de 2010 por un importe de 46.810,64 €.
Decreto nº 1630 de 18 de marzo de 2010 por un importe de 506.000,00 €.
Decreto nº 1679 de 22 de marzo de 2010

22koa, 34.800,00 eurokoa.
1680 Dekretua, 2010eko martxoaren 22koa, 162.400,00 eurokoa.
1681 Dekretua, 2010eko martxoaren 25ekoa, 39.999,12 eurokoa.
1682 Dekretua, 2010eko martxoaren 22koa, 52.000,48 eurokoa.
1684 Dekretua, 2010eko martxoaren 25ekoa, 250.000,00 eurokoa.
1702 Dekretua, 2010eko martxoaren 25ekoa, 661.696,42 eurokoa.

por un importe de 34.800,00 €.
Decreto nº 1680 de 22 de marzo de 2010 por un importe de 162.400,00 €.
Decreto nº 1681 de 25 de marzo de 2010 por un importe de 39.999,12 €.
Decreto nº 1682 de 22 de marzo de 2010 por un importe de 52.000,48 €.
Decreto nº 1684 de 25 de marzo de 2010 por un importe de 250.000,00 €.
Decreto nº 1702 de 25 de marzo de 2010 por un importe de 661.696,42 €.

**57.- 1561, 1563, 1600, 1603, 1653, 1656, 1661 ETA 1918/2010 ZENBAKIDUN ALKATETZA-LEHENDAKARITZAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA, TRANSFERENTZIEN BIDEZ AURREKONTUA ALDATZEN DUTENAK.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuetako Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen:

Ondoko Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretuen jakinaren gainean izatea, transferentzien bidez aurrekontua aldatzen dutenena:

1561 Dekretua, 2010eko martxoaren 15ekoa, 8.289,04 eurokoa.
1563 Dekretua, 2010eko martxoaren 15ekoa, 127,34 eurokoa.
1600 Dekretua, 2010eko martxoaren 16koa, 70.000,00 eurokoa.
1603 Dekretua, 2010eko martxoaren 16koa, 3.000,00 eurokoa.
1653 Dekretua, 2010eko martxoaren 18koa, 196.000,00 eurokoa.
1656 Dekretua, 2010eko martxoaren 22koa, 20.000,00 eurokoa.

**57º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 1561, 1563, 1600, 1603, 1653, 1656, 1661 Y 1918/2010, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Transferencias:

Decreto nº 1561 de 15 de marzo de 2010 por un importe de 8.289,04 €.
Decreto nº 1563 de 15 de marzo de 2010 por un importe de 127,34 €.
Decreto nº 1600 de 16 de marzo de 2010 por un importe de 70.000,00 €.
Decreto nº 1603 de 16 de marzo de 2010 por un importe de 3.000,00 €.
Decreto nº 1653 de 18 de marzo de 2010 por un importe de 196.000,00 €.
Decreto nº 1656 de 22 de marzo de 2010 por un importe de 20.000,00 €.

1661 Dekretua, 2010eko martxoaren 25ekoa, 20.000,00 eurokoa.
1918 Dekretua, 2010eko martxoaren 31koa, 968,60 eurokoa.

Decreto nº 1661 de 25 de marzo de 2010 por un importe de 20.000,00 €.
Decreto nº 1918 de 31 de marzo de 2010 por un importe de 968,60 €.

**58.- 1687/2010 ZENBAKIDUN ALKATETZA-LEHENDAKARITZAREN DEKRETUA JAKINARAZTEA, GELDIKINEN BIDEZ AURREKONTUA ALDATZEN DUENA.**

**58º.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚM. 1687/2010, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE INCORPORACIÓN DE REMANENTES.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuetako Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

2010eko martxoaren 22ko 1687 zenbakidun Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretuaren jakinaren gainean izatea, 2.818.628,72 eurokoa, geldikinen bidez aurrekontua aldatzen duena.

Quedar enterados del Decreto de la Alcaldía-Presidencia núm. 1687, de 22 de marzo de 2010 por un importe de 2.818.628,72 €, de modificación presupuestaria mediante incorporación de Remanentes.

**59.- 1019/2010 ZENBAKIDUN ALKATETZA-LEHENDAKARITZAREN 1019/2010 DEKRETUA JAKINARAZTEA, 2009KO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOA ONARTZEN DUENA.**

**59º.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚM. 1019/2010 DE APROBACIÓN DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL 2009.**

Proposamena irakurri ostean, Aitor Soloetak hartu du hitza eta likidazioa aurkeztu du. Bere esanetan, likidazioaren edukia aipatuko du onartutako aurrekontuari dagokionez, eta likidatutako zenbatekoak

Tras darse lectura a la propuesta interviene Aitor Soloeta que presenta la liquidación indicando que se va a referir al contenido de la misma en relación con el presupuesto aprobado, que al resultar los importes liquidados

onartutako aurrekontua baino handiagoak direnez, horrek esan nahi du hasiera batean aurreikusi baino obra gehiago egin eta zerbitzu gehiago eskaini direla. Ondoko datuak eskaini ditu:
2009ko Aurrekontua, diru-sarrerak eta gastuak, ehun milioi eurokoa.
Kontratazioak hasitako gastua ekitaldian: 137 milioi euro.
Kontratazioak hasitako eta adjudikatutako gastua ekitaldian: 129 milioi euro.
Hasitako, adjudikatutako eta amaitutako gastua ekitaldian: 108 milioi euro.
Halaber, adierazten duenez, marjina horren arrazoia da aurreikusi ez diren bestelako erakundeen aldeko 17 milioi euroko diru-laguntzak jaso direlako, eta Diruzaintzako Geldikinak aplikatu direlako. Diruzaintzako geldikinei dagokienez, adierazten duenez, 2009ko abenduaren 31n 48 milioi ziren geldikinetan, eta horietatik 9.600.000 € soilik dira eskuragarritasun librekoak; izan ere, 13 milioi geldikinak dira ukitutako finantzazioarekin, hau da, proiektu zehatzak exekutatzeko jasotako dirua, eta ekitaldiaren itxiera-datan ez dira ordaindu zenbateko guztiak; hala ere, gainontzeko zenbateko horiek ukitutako proiektuak ez direnetan ezin dira erabili, eta adibidetzat, Foru Aldundiak Faduran inbertitzeko emandako diru-laguntzak eman ditu. Ekitaldi berean, 25,5 milioi euroko zenbatekoa ekitaldian hasi baina amaitu gabe diren kontratazioei dagozkie; beraz, geldikin horiek hasitako obra eta kontratazioekin jarraitzeko erabili behar dira, eta adibidetzat enpresa eremuko kontratazioetarako diru-laguntza programa jarri du.

superiores al presupuesto aprobado, significa que se han realizado más obras y se han prestado más servicios que los inicialmente previstos. Aporta los siguientes datos:

Presupuesto 2009, ingresos y gastos por importe de cien millones de euros.
Gasto iniciada la Contratación en el ejercicio: 137 millones de euros.
Gasto iniciada y adjudicada la contratación en el ejercicio: 129 millones de euros.
Gasto iniciado, adjudicado y finalizado en el ejercicio: 108 millones de euros.

Manifiesta asímismo que este margen se debe a que se han conseguido 17 millones de euros de subvenciones de otras instituciones no previstos, y también por la aplicación de los Remanentes de Tesorería. Respecto a los Remanentes de Tesorería indica que el 31 de diciembre de 2009 existían 48 millones en remanentes, de los que 9.600.000 € únicamente son de disponibilidad libre, ya que 13 millones son remanentes con financiación afectada, es decir, dinero recibido para ejecutar proyectos concretos, y que a la fecha de cierre del ejercicio no se han abonado todas las cantidades, pero dichos importes restantes no pueden dedicarse a otros proyectos que a los que están afectados, poniendo como ejemplo la subvención de Diputación para inversiones en Fadura. En ese mismo ejercicio, un importe de 25,5 millones de euros se refiere a contrataciones iniciadas en el ejercicio pero no finalizadas, y que por tanto dichos remanentes deben de aplicarse a la continuación de las obras y contrataciones iniciadas, poniendo como ejemplo el programa de subvenciones para ayudas a la contratación en el ámbito empresarial.

Ondoren, Andrade jaunak hartu du hitza talde Popularraren izenean, eta adierazi duenez, likidazioak 2009ko aurrekontua nolatan gastatu den adierazten du, legealdi honetan PNVk eta PSEk hitzartutako lehenengoa, eta bere likidazioak Gobernu taldearen kudeaketarako gaitasun eza agerian uzten du. Ukitutako maileguetarako geldikina kenduta, 36 milioi euro geratzen dira, bere ustean, eskuragarritasun librekoak, herriaren onurarako inbertitu gabe geratu direnak. Adibidetzat, ekonomia sustatutako planerako 3.250.000 euro jarri dira aurrekontuan, eta soilik 500.000 gastatu dira, eta sektore horretako errealitate ekonomikoa da Areetako komertzioen %25 itxita daudela. Halaber, 2009ko aurrekontuak biltzen zuenez, babestutako 1.000 etxebizitza eraikitzen hasiko ziren Andra Marin, eta gaur egun arte ez da ezer egin, eta aurrekontu aurreikuspenak izan arren, ez da inolako lurzorurik hartu, eta larriena, talde politiko berberek hitzartutako 2010eko aurrekontuak ere ez du alderdi horiek kontuan hartzen, Getxoko udalerrian existitzen den etxebizitza arazoa kontuan hartu gabe. Aurrekontuan bildutako exekutatu gabeko eta aurreikusitako proiektuak aipatu ditu, besteak beste, familia topagune puntuak, desjabetzeak Errekaganen, komun publikoak instalatzea, lur-azpiko edukiontziak, etab. Gogorarazten duenez, PNVk eta PSEk hitzartutako aurrekontuaren ardatza gizarte politikak sustatzea zen, eta likidazioan antzematen denez, gizarte zerbitzuen eta etxebizitzaren gastua aurrekontuaren %7,34koa izan da, pertsonalaren gastuak %14 handitu direnean 2009ko ekitaldian, plantilla handitu gabe, eta gastu korrontea %19

A continuación interviene el Sr. Andrade para manifestar en nombre del grupo Popular que la liquidación indica cómo se ha gastado el presupuesto del año 2009, presupuesto que fue el primero pactado en esta legislatura entre el PNV y el PSE, y cuya liquidación evidencia la incapacidad de gestión del equipo de Gobierno. Descontando el remanente para créditos afectados, restan 36 millones de euros, que en su opinión son de libre disposición, que se han dejado de invertir en el beneficio del pueblo. Pone por ejemplo que habiéndose presupuestado 3.250.00 euros en el plan de revitalización económica, únicamente se han gastado 500.000 euros, pese a que la realidad económica en este sector es que el 25% de los comercios de Las Arenas están cerrados. También recogía el presupuesto del año 2009, que se iba a iniciar la construcción de 1.000 viviendas protegidas en Andra Mari, y a la fecha actual nada se ha hecho, ni tampoco se ha adquirido, pese a las previsiones presupuestarias, nada de suelo, y lo más grave es que el presupuesto del 2010 también pactado por los mismos grupos políticos, tampoco contempla nada de estas cuestiones, pese a la grave problemática de vivienda existente en Getxo. Cita proyectos no ejecutados y previstos en el presupuesto como puntos de encuentros familiares, expropiaciones en Errekagane, instalación de urinarios públicos, contenedores soterrados, etc. Recuerda que se planteó como un eje de los presupuestos pactados entre el PNV y el PSE reforzar las políticas sociales, y se ve en la liquidación que el gasto en servicios sociales y vivienda supone el 7,34% del presupuesto frente a los gastos de personal que se han

handitu denean. Era berean, bere esanetan, 10 milioi euroko zalantzazko kobrantzak daude, eta kobrantzaren ikuspegitik handitu den bakarra isunek eragindakoa izan da, %60. Amaitzeko, bere esanetan, likidazioak agerian uzten du Gobernu taldearen gaitasun eza auzokideen arazoak konpontzeko, eta baita legealdiko plana betetzeko gaitasun eza ere.

incrementado un 14% en el ejercicio 2009 sin incrementar plantilla, y el gasto corriente que se ha incrementado un 19%. Indica también que figuran 10 millones de euros de dudoso cobro, y que lo único que se ha incrementado desde el punto de vista de cobro son los ingresos por multas en un 60%. Finaliza indicando que la liquidación demuestra la incapacidad del equipo de Gobierno de resolver los problemas de los vecinos, y también la incapacidad de cumplir su propio plan de legislatura.

Soloeta jaunaren esanetan, aurrekontu batek ez du behartzen obra ekitaldi zehatz horretan egitera behartzen; izan ere, obrek euren dinamika propioa dute, eta horretarako daude geldikinak. Gogorarazten duenez, geldikin guztietatik 13 milioi ukitutako finantzaziokoak dira, talde Popularrak aitortu bezala, eta 25,5 milioi daude geldikinetan 2009ko ekitaldian hasitako jardueretarako eta beraz, jarduera horiek gauzatzeko erabili behar dira 2010ean; ondorioz, 9.600.000 euroko geldikin geratzen da geldikin libretzat, beharrezkotzat jotzen dena Udalaren funtzionamendu egokirako.
Gobernu taldearen kudeaketari dagokionez, datuak eskaintzen ditu. Datu horien arabera, legealdi honetan ondasun eta zerbitzuen kontratazio publikoa %30 handitu da, aurreko legealdiko mailekin konparatzen badugu.

El Sr. Soloeta indica que un presupuesto no obliga a realizar la obra en ese ejercicio concreto, ya que las obras tienen su dinámica propia, y para eso existen los remanentes. Insiste en que de los remanentes totales 13 millones son de financiación afectada, y no disponible, tal como reconoce el propio grupo Popular, y que existen 25,5 millones de remanentes que se refieren a actuaciones iniciadas en el ejercicio 2009 y que por tanto hay que destinarlos a sufragar esas actuaciones durante el ejercicio 2010, quedando por tanto únicamente un remanente libre de 9.600.000 euros, que estima que es una cantidad necesaria para el funcionamiento del Ayuntamiento. Respecto a la gestión del equipo de Gobierno da datos en los que demuestra que en esta legislatura se ha incrementado la contratación pública de bienes y servicios en un 30% sobre los niveles de la legislatura anterior.

Andrade jaunak adierazten duenez, aurrekontuan jarritakoa urtean exekutatutakoarekin konparatu behar da, Kontu Hartzailearen txostenean jaso bezala; izan ere, urtez urtekoa trasladatzen bada, ezinezkoa da inolako konparaziorik egitea. Gogorarazten duenez, 2009an aparteko finantzazioa

El Sr. Andrade insiste en que hay que comparar lo presupuestado con lo ejecutado en el año, tal como indica el informe del Interventor, ya que si se empieza a trasladar de años es imposible realizar comparación alguna. Recuerda que el año 2009 ha existido financiación extraordinaria tanto del

izan da, Gobernu zentralaren zein Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, eta galdetzen du zergatik ez den hasieran aurreikusitako aurrekontua komertzioa sustatzeko gastatu, zergatik ez den lurzorurik erosi eta zergatik ez den etxebizitzarik egin. Bere esanetan, arrazoi nagusia auzokideen arazo garrantzitsuenak konpontzeko kudeaketarako gaitasun eza da, besteak beste, etxebizitza, aparkalekua eta komertzioa, adierazita euskal kulturaren sustapenerako aurreikusitako gastu osoa baino ez dela exekutatu.

Gobierno central como de la Diputación Foral de Bizkaia, y pregunta por qué no se ha gastado el presupuesto inicialmente previsto para el fomento del comercio, ni por qué no se ha comprado suelo, ni realizado vivienda, entendiendo que la única razón es la falta de capacidad de gestión para resolver los problemas más importantes de los vecinos como son la vivienda, el aparcamiento, y el comercio, y que lo único en lo que se ha ejecutado todo el gasto previsto es en la promoción de la cultura vasca.

Aitor Soloetak etxebizitzari buruz adierazten duenez, PNV eta Talde Sozialistaren arteko akordioa dago udal etxebizitzaren gainean, legealdi honetan garatuko dena, eta aurkeztu diren plan horretako garapen-jarduera guztiek Talde Popularraren oposizioa izan dute. Sustapen ekonomikoari buruz adierazi duenez, inoiz ez da hainbeste diru eman; izan ere, aurrekontuak 3.250.000 euro biltzen ditu, eta aurreikusitakoa exekutatzen ari da, zati bat urte honetan, baina aurreikusitako jarduera guztiak amaituko dira. Komertzio datuei dagokienez, 2009ko JEZn 873 baja eta 935 alta biltzen dira, 62 altako hazkunde gordina, eta 2010eko lehen lau hilabeteetan 195 baja eta 277 alta izan dira, alten 82ko hazkunde garbia lau hilabetean.

Aitor Soloeta manifiesta que respecto a la vivienda, existe un acuerdo entre el PNV y el grupo Socialista sobre el plan de vivienda municipal, que se va a desarrollar en la presente legislatura, y que todas las actuaciones de desarrollo de dicho plan que se han presentado han contado con la oposición del Grupo Popular. Respecto a la promoción económica manifiesta que nunca se ha destinado tanto dinero, ya que el presupuesto recoge 3.250.000 euros, y se está ejecutando lo previsto, si bien una parte en el presente año, pero que finalizarán todas las actuaciones previstas. Como datos de comercio manifiesta que en el IAE del año 2009 se observan 873 bajas frente a 935 altas, lo que supone un incremento neto de 62 altas, y en los primeros 4 meses del año 2010 se han producido 195 bajas frente a 277 altas, lo que supone un incremento neto de altas de 82, en cuatro meses.

Andrade jaunak Soloeta jaunari kalean murgiltzeko eskatzen dio, errealitatea ikus dezan, konturatzeko Areetako komertzioen 525 itxita dagoela. Sustapen ekonomikoaren gastuari dagokionez, bere esanetan, gastu osotik

El Sr. Andrade invita al Sr. Soloeta a que ande por la calle, vea la realidad, y se dará cuenta como el 25% del comercio de Las Arenas está cerrado. En relación al gasto en promoción económica, manifiesta que del total se

komunikazioan eta informazioan 2.300.000 euro gastatu dira, gainontzeko jarduera ekonomikoetan gastatutakoa baino gehiago. Gogorarazten duenez, PNVk eta PSEk aurrekontuekin iragarritako konpromisoak ez dira bete, eta talde Sozialistak udal aurrekontura egindako ekarpenetik, 6 milioi eurokoa, 405.000 euro baino ez dira exekutatu eta ondorioz, bildu zituzten 36 proiektuetatik bost; hala ere, Gobernu taldea lagundu dute 2010eko aurrekonturako.

han gastado en comunicación e información 2.300.000 euros, que es más que todo lo gastado en el resto de actividades económicas. Insiste en que los compromisos anunciados por el PNV y el PSE con los presupuestos, no se han cumplido, y que de la aportación del grupo Socialista al presupuesto municipal que cifraron en 6 millones de euros, sólo se ha ejecutado en 405.000 euros, lo que ha supuesto cinco de los 36 proyectos que incorporaron, pero pese a ello han vuelto a apoyar al equipo de Gobierno en el presupuesto del año 2010.

Eztabaida amaituta, Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuetako Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen:

Finalizado el debate, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

2010eko martxoaren 3ko 1019 zenbakidun Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretuaren jakinaren gainean izatea, 2009ko Aurrekontu Orokorren Likidazioa onartzen duena.

Quedar enterados del Decreto de la Alcaldía-Presidencia núm. 1019, de 3 de marzo de 2010, de aprobación de la Liquidación del Presupuesto General 2009.

**60.- <u>2010EKO 1. HIRUHILEKO AURREKONTU-EXEKUZIOAREN EGOERA JAKINARAZTEA.</u>**

**60º.- <u>DACIÓN DE CUENTA DEL ESTADO DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA 1º TRIMESTRE 2010.</u>**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuetako Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen:

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

2010eko ekitaldiko 1. hiruhileko aurrekontu-exekuzioaren egoeraren jakinaren gainean izatea. Dagokion dokumentazioa erreferentziako espedientean jasota dago.

Darse por enterados del Estado de Ejecución Presupuestaria correspondiente al 1º trimestre del ejercicio 2010, cuya documentación consta en el expediente de referencia.

## INGURUMENA

## 61.-ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA BERRIAREN HASIERAKO ONARPENA.

Proposamena irakurri ostean, Alkateak adierazten duenez, talde Popularrak Ordenantzaren edukiari buruzko zuzenketak aurkeztu ditu; hala ere, udal Erregelamendu Organikoan bildutako epea ez du betetzen aurkezteko prozesuari dagokionez; beraz, ez dira izapidetuko, Ordenantzaren hasierako onarpenaren ondoko agerpen publikoaren epean talde Popularrak aurkez ditzakeenei kalterik egin gabe.

Keltse Eigurenek adierazten duenez, Ordenantzaren helburua existitzen den araudia eguneratzea eta ukitutako sektore guztien interesak orekatzen dituen testua bilatzea da. Jakinarazten du udalerri desberdinetako teknikariek EUDELen landutako Ordenantza mota hartu dela oinarritzat, eta nobedadea da txakurrentzako aisialdi zonaldeak biltzen dituela ordutegi zehatz batzuetan.

Jone Ruiz de Eguilazen esanetan, talde Popularra Ordenantzaren alde agertuko da eta alegazioak aurkeztuko dituzte publikoaren aurreko agerpen epean utzitako animalien lagapena ahalbideratzeko, animalien udal zerbitzuari zein animaliak babesteko elkarteei. Halaber, euren esanetan

## MEDIO AMBIENTE

## 61º.- APROBACIÓN INICIAL DE LA NUEVA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA TENENCIA Y PROTECCIÓN DE ANIMALES.

Tras darse lectura a la propuesta el Alcalde indica que el grupo Popular ha presentado unas enmiendas al contenido de la Ordenanza, pero que incumplen el plazo contemplado en el Reglamento Orgánico municipal para su presentación, por lo cual no serán objeto de trámite, sin perjuicio de que el grupo Popular las pueda presentar en el período de exposición pública que se producirá tras la aprobación inicial de la Ordenanza.

Keltse Eiguren manifiesta que la Ordenanza se realiza por la necesidad de actualizar la normativa existente y buscar un texto que equilibre los intereses de todos los sectores afectados. Informa que se ha tomado como base la Ordenanza tipo trabajada en EUDEL por diferentes técnicos de distintos municipios, y recogen como novedad la determinación de unas zonas de esparcimientos para perros con horarios determinados.

Jone Ruiz de Eguilaz indica que el grupo Popular va a apoyar la Ordenanza y van a presentar las alegaciones en el plazo de exposición al público para posibilitar la cesión de animales abandonados, además de al servicio municipal de animales a organizaciones protectoras de animales.

beharrezkoa da katu koloniaren arreta hobetzea auzokide eta jabe erkidegoen laguntzarekin. Amaitzeko, adierazten duenez, aisialdi zonaldeak eta horien ordutegiak zabaltzea proposatuko dute, udal eremu osoan ahalik eta erarik uniformeenean banatzeko.

Estiman también necesario mejorar la atención de las colonias de gatos a través de colaboración con vecinos y comunidades de propietarios. Finaliza indicando que plantearán también ampliar las zonas de esparcimiento y los horarios de las mismas, y que se distribuyan de manera más uniforme por todo el término municipal.

Aipatutako Mozioa bozkatu egin da eta bildutako zinegotzi guztiek onartu egin dute.

Sometida la Moción de referencia a votación, es aprobada por la totalidad de concejales presentes.

Ondorioz, eta Ingurumeneko Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen aho batez:

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Medio Ambiente, se acordó por unanimidad:

LEHENA.- Hasiera batean, ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA BERRIA onartzea.

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la nueva ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA TENENCIA Y PROTECCIÓN DE ANIMALES

BIGARRENA.- Espedientea interesdunen informazio publiko eta audientziaren eraginpean jartzea, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, hogeita hamar egunez, egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

SEGUNDO.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados, mediante la inserción del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, por el plazo de treinta días y para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

HIRUGARRENA.- Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, Ordenantza behin betiko onartutzat hartuko da, eta Alkatetza-Lehendakaritzak berariazko eskumena izango du argitaratzeko eta exekutatzeko.

TERCERO.- En caso de que no se presente ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente aprobada esta Ordenanza, quedando facultado expresamente el Alcalde-Presidente para su publicación y ejecución.

LAUGARRENA.- Berariaz jasota geratzen da onartzen den Ordenantzak, behin indarrean denean, gaur egunean indarrean dagoena ordezten duela, indargabetu egingo baita.

CUARTO.- Se hace constar de forma expresa que la Ordenanza que se aprueba, una vez haya entrado en vigor, sustituye plenamente a la actualmente vigente, que quedaría derogada.

**HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK**

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS**

**62.- ERROMOKO KULTUR ETXEA ERAIKINERAKO OINARRIZKO PROIEKTUA ONARTZEA.**

**62º.- APROBACIÓN DEL PROYECTO BÁSICO PARA EL EDIFICIO KULTUR ETXEA DE ROMO.**

Proposamena irakurri ostean Arregi jaunak hartu du hitza adierazteko proiektu hori garrantzitsuenetako dela Erromoko auzoari eragingo dion bultzadagatik eta elkartze jarduera guztiei eskainiko dion sustapenagatik, azaleran 4.000 m2 bilduko baititu kultura eta gizarte mailako erabileretarako. Era berean, adierazten duenez, proiektua udalerria modernizatzeko ematen ari diren urratsetan bildu behar da, adituek osatutako epaimahai batek 21 proposamenen artean aukeratutakoa, talde politiko guztiek ordezkaritza izan dutenekoak, eta onartzeko aurkezten den proiektua aukeratu da, biltzen dituen diseinua, iraunkortasuna, funtzionaltasuna, materialak eta teknologia kontuan hartuta.

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Arregi para indicar que este proyecto es uno de los más importantes por el impulso que va a suponer para todo el barrio de Romo y de apoyo a toda la actividad de asociacionismo, ya que incorporará 4.000 m2. de superficie para usos culturales y sociales. Indica también que el proyecto hay que integrarlo en los pasos que se están dando en modernizar el municipio, y que ha sido elegida entre 21 propuestas por un tribunal de expertos en el que han tenido representación todos los grupos políticos, y ha sido elegido el proyecto que se presenta a su aprobación teniendo en cuenta su diseño, sostenibilidad, funcionalidad, materiales, etc, y tecnología moderna que incorpora.

Almansa jaunaren esanetan, esku-hartze horretan talde Sozialistaren gai horri buruzko jarrera defendatuko du, baita hurrengoan ere, hau da, Getxo Antzokiaren proiektuan, eta bi proiektuak GHAPOren aldaketen garapentzat jotzen ditu, ezarritako eraikin zehaztu direnak proiektuen okupazioa eta altuera Bilkuran kontrako botorik izan gabe. Oso era positiboan baloratu du proiektu hori, Erromo eta Getxo osorako duen

El Sr. Almansa indica que en esta intervención va a defender la posición del grupo Socialista respecto a este tema y al siguiente que es la aprobación del proyecto del Getxo Antzokia, y califica ambos proyectos como de desarrollo de modificaciones del PGOU que han definido como edificación impuesta las determinaciones de ocupación y altura de los proyectos sin que haya habido ningún voto en contra en el Pleno. Valora muy positivamente

garrantziagatik, eta adierazten duenez, proiektu hori ez zen gauzatuko sozialisten laguntzarik gabe; izan ere, euren esanetan, oso garrantzitsua da Getxoren maila kulturala bermatzea eta sustatzea, baita elkartze jarduerak indartzea ere. Getxo Antzokia proiektuari buruz adierazi duenez, proiektuaren alde agertuko dira biltzen dituen bere kalitate eta soluzio espazialagatik, gogorarazita azpiegitura hori ez zela gauzatuko talde sozialistaren laguntzarik gabe, hasiera batetik, eta Gobernu zentraletik emandako finantzazioaren bidez, proiektuaren alde agertu baitira. Adierazi duenez, onartuko den proiektua, kontsultatutako adituen arabera, oso ondo diseinatuta dago, eta era egokian ebazten du kokatzen deneko plazarekiko egokitasuna, hobetzen Joan dena auzokide eta elkarteen ekarpenekin. Gogorarazi duenez, hurbileneko auzokideen erreklamazioak artatu dira, eta horregatik 2 metroan jaitsi da eraikinaren altuera eta ondoko eraikinetatik banandu da, gutxienez aurreko kultura eraikina zen distantzia berean, eta era berean, material egokienak erabili dira inpaktu bisuala ahalik eta gehien murrizteko.

este proyecto por la importancia que tiene para Romo y para todo Getxo, y manifiesta que este proyecto no hubiera sido posible sin el apoyo de los socialistas, ya que estiman que es importante asegurar y potenciar el nivel cultural de Getxo y reforzar también su tejido asociativo. Respecto al proyecto del Getxo Antzokia manifiesta que apoyarán el proyecto por su calidad y solución espacial que contempla, recordando que esta importante infraestructura no hubiera sido posible sin el apoyo de los socialistas que desde el principio, y a través de la financiación que ha otorgado el Gobierno central, han apostado por el proyecto. Indica que el proyecto que se va a aprobar, según los expertos consultados, está muy bien diseñado, y resuelve con brillantez su encaje en la plaza en la que se ubica, y que se ha ido mejorando con la aportación de vecinos y asociaciones. Recuerda que se han atendido reclamaciones de los vecinos más cercanos, y por ello se ha rebajado 2 metros la altura de la edificación y se ha separado de los edificios colindantes, al menos a la misma distancia que estaba la anterior infraestructura cultura, y a su vez se han utilizado los materiales más adecuados para minimizar el impacto visual.

Gamero jaunak Erromoko Kultur Etxea eraikinaren oinarrizko proiektuari buruz adierazi duenez, bat datoz proiektua oso ona dela esaten denean, baina kontrako botoa emango dute; izan ere, proposamenak fasekako exekuzioa biltzen du, euren esanetan legalitatearen mugan, helburua Bilkuraren eskumenetatik erauztea, eta beraz, kontratazio prozedura osoan talde politikoek izandako partaidetzatik. Talde Sozialistari

El Sr. Gamero indica que respecto al proyecto básico de la Kultur Etxea de Romo, están de acuerdo en que el proyecto es muy bueno, pero van a votar en contra ya que la propuesta contempla una ejecución en fases, que en su opinión bordea la legalidad, y que tiene como objeto sustraer de las competencias del Pleno y por tanto de la participación de todos los grupos políticos en todo el procedimiento de contratación. Pregunta al grupo

galdetzen dio zer ezkutatu behar duen obra kudeatzeko era horren alde agertzeko, hau da, Bilkurari eskumenak kentzea eragiten duena. Azkenik adierazten duenez, talde Popularra ados egongo litzateke kontratazioa fase bakarrean egingo balitz, Bilkurako talde politiko guztiek parte hartzeko aukera izateko.

Socialista qué tiene que esconder para que apoye esta forma de gestionar la obra que supone sustraer competencias del Pleno. Finaliza indicando que el grupo Popular estaría de acuerdo si la contratación se realizara en una única fase, y pudieran participar todos los grupos políticos del Pleno.

Arregi jaunaren esanetan, ez du ulertzen nolatan talde Popularra, oso proiektu ona dela esanda, eta bere zehaztapenean parte hartuta, kontra agertzen den, kontratazio kontu batengatik, kontu bakarra legalitatea betetzea denean. Bere esanetan, gaia Bilkurara ekarri da eztabaidatzeko, eta aurretiaz partaidetzako prozesu handia izan da abian, udal taldeek eta auzokideek parte hartu dutenekoa. Amaitzeko, adierazi duenez, Gobernu taldeak ez du arazorik Bilkurak gai guztiak jorratzeari dagokionez; izan ere, nahikoa gehiengoa du horretarako; hala ere, legalitateak eskatzen duena izango da, eta talde Popularraren jarrera ez du ulertzen, kontrako botoa emango baitu oso proiektu ona dela adierazi dutenean.

El Sr. Arregi manifiesta que no entiende cómo el grupo Popular, frente a un proyecto que califica de muy bueno, y en el que han participado en su determinación, se opongan por un tema de contratación en que lo único que cabe es cumplir la legalidad. Manifiesta que se trae el tema al Pleno para su debate, y que previamente ha existido un gran proceso de participación tanto de los grupos municipales como de los vecinos. Finaliza indicando que el equipo de Gobierno no tiene problemas para que el Pleno trate todas las cuestiones ya que cuenta con mayoría suficiente, pero que será lo que la legalidad exija, y lamenta la postura del grupo Popular que va a votar en contra de un proyecto al que ha calificado de muy bueno.

Almansa jaunaren esanetan talde Popularra polemika bila dabil gai garrantzitsuen gaineko arreta desbideratzeko, eta beraz, Bilkuran prebarikatzen du. Gogorarazten duenez, onartzen dena Bilkuran onartutakoaren garapen grafikoa eta estetikoa da, baita talde Popularrak ere, HAPOren aldaketa zehatzetan, kasu honetan zein Getxo Antzokiaren kasuan ezarritako eraikin definitutakoetan, eta beraz altuerak, alineazioak eta behereak zehaztuta, inolako zehetasun azterketarik egin beharrik gabe. Amaitzeko, bere esanetan talde Sozialistak ez du

El Sr. Almansa indica que el grupo Popular busca la polémica para desviar la atención sobre las cuestiones importantes, y que por tanto prevarica en el Pleno. Recuerda que lo que se aprueba es el desarrollo gráfico y estético de lo que se ha aprobado en el Pleno, y también por el grupo Popular, en las modificaciones concretas del PGOU que, tanto en este caso como en el del Getxo Antzokia definen edificaciones impuestas, y por tanto determinando las alturas, alineaciones y rasantes, sin que sea necesario ningún tipo de estudio de detalle. Finaliza manifestando que el grupo Socialista no

polemika horretan parte hartuko.

Gamero jaunak adierazten duenez, prebarikatzeko delitua gauzak egitea da eta ez adierazpenak ematea, eta edozein kasutan, Almansa jauna da laido delitua gauzatu duena bere taldeari delitu bat egozteagatik. Bere esanetan ez da eztabaida horretan sartuko. Berriro ere adierazten duenez, proiektu horiek etorkizuneko eztabaida publikotik kendu nahi dira, proiektuaren borondateak aitortzen ditu, baina horien kudeaketa kritikatzen du, eta gehiengoaren laguntza izateari dagokionez, gogorarazi du 170 mozio baino gehiago Bilkuran gehiengoz onartu direla eta oraindik bete gabe daudela.

Arregi jaunaren esanetan, talde Popularrak planteatzen duena kontu juridiko hutsa da, kontratazioan aplikatu beharreko araudia hain zuzen, beraz, ez du ulertzek talde Popularraren kontrako jarrera eta proiektuan taldeek zein auzokideek proiektuan izandako partaidetza gogorarazi du.

Gamero jaunak erantzun du adierazteko ez dela gauza bera oinarrizko proiektua eta exekuziokoa, ondoren lizitatuko dena, eta Bilkuratik ez iragatea proposatzen dena.

Almansa jaunak kontzeptu juridikotzat egindako prebarikazio adierazpena baztertu du, bere esanetan, bere asmoa errealitatea faltsutzen ari direla esatea zen.

Aipatutako proposamena bozkatu egin da eta emaitza ondokoa da: 13 boto alde, PNV eta PSE-EE eta 11 boto kontra, PP eta Alternatiba.

va a entrar a esas polémicas.

El Sr. Gamero manifiesta que el delito de prevaricar es hacer cosas y no se refiere a manifestaciones, y que en todo caso sería Almansa el que ha cometido un delito de injurias por atribuirles a ellos un delito, pero que no va a entrar en ese debate. Insiste en que se pretende sustraer del debate público futuro estos proyectos, reconoce las bondades del proyecto, pero critica la forma de gestión del mismo, y en relación a que tienen el apoyo de la mayoría, recuerda que más de 170 mociones se han aprobado por mayoría en el Pleno sin que se hayan cumplido.

El Sr. Arregi indica que lo que plantea el grupo Popular es una cuestión puramente jurídica como es la normativa de aplicación en la contratación, por lo que no entiende la oposición del grupo Popular y recuerda la participación habida tanto de los grupos como de los vecinos en la gestación del proyecto.

El Sr. Gamero replica que no es lo mismo un proyecto básico que el de ejecución, que es el que luego va a salir a licitación, y que se pretende que no se pase por el Pleno.

El Sr. Almansa retira la manifestación de prevaricación realizada como concepto jurídico, ya que lo que quería manifestar es que están falseando las realidades.

Sometida la propuesta de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV y PSE-EE y 11 en contra del PP y Alternatiba.

Ondorioz, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen gehiengoz:

Onartzea, Udal Arkitekturak onetsitako txostenaren arabera, "ERROMOKO KULTUR ETXEA ERAIKINERAKO OINARRIZKO PROIEKTUA", 7.446.200,00 euroko aurrekontuarekin, BEZ barne, "U.T.E. MECSA, S.A. & ESTUDIO TORRE ELORDUY, S.L.P" sozietateak idatzitakoa.

Proiektu hori dagozkion proiektuetan garatu beharko da, 30/2007 Legearen 107. artikuluan ezarritakoaren arabera, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituena.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por mayoría:

Aprobar, de conformidad con el informe suscrito por la Arquitectura Municipal, el "PROYECTO BÁSICO PARA EL EDIFICIO KULTUR ETXEA DE ROMO", con un Presupuesto de 7.446.200,00 euros, I.V.A. incluido, que redacta "U.T.E. MECSA, S.A. & ESTUDIO TORRE ELORDUY, S.L.P".

Este Proyecto habrá de ser desarrollado en los correspondientes proyectos de ejecución, con el contenido expresado en el Art. 107 de la Ley 30/2007, de 30 octubre, de Contratos del Sector Público.

**63.- <u>GETXO ANTZOKIA BERRIAREN OINARRIZKO PROIEKTUA ONARTZEA.</u>**

Proposamena irakurri ondoren Arregi jaunak hartu du hitza adierazteko hiru urte baino gehiagoko kudeaketarekin, Getxo Antzokia eta Algorta eta Andra Mariko Musika Eskola biltzen dituen oinarrizko proiektua aurkeztu dela. Proiektua udalerriko nagusientzat jotzen du, eta garrantzi handikoa hirigintzan, kulturan eta ekonomian duen eraginagatik. Gogorarazi duenez, proiektua lehiaketa publiko batetik dator, eta auzokide, talde politiko eta elkarte eta abarren ekarpenetatik. Jarraitutako prozesua azaldu du eta adierazi duenez, oraindik proiektuarekin bat ez datozen auzokideekin akordioak lortzen saiatzen ari dira, hobekuntzak, baina

**63º.- <u>APROBACIÓN DEL PROYECTO BÁSICO DE NUEVO GETXO ANTZOKIA.</u>**

Tras darse lectura de la propuesta interviene el Sr. Arregi para indicar que tras más de tres años de gestión, se presenta el proyecto básico que alberga el Getxo Aztzokia y la Musika Eskola de Algorta y Andra Mari. Califica al proyecto como proyecto estrella del municipio, y de gran importancia por sus efectos en la urbanización, en la cultura y también en la economía. Recuerda que el proyecto viene de un concurso público, y de las aportaciones de los vecinos, grupos políticos y asociaciones, etc. Explica el proceso seguido e indica que todavía aún se siguen intentando acordar con los vecinos discrepantes del proyecto, mejoras sobre el mismo, pero que

logikoki ezin dituzte baldintzatu ez beharren programak ezta proiektuaren oinarrizko elementuak ere. Amaitzeko, adierazi duenez, kontu hori zazpi aldiz baino gehiagotan pasatu da udal Bilkuratik, eta inoiz ere ez du kontrako botorik izan.

Andrade jaunaren esanetan, talde Popularra proiektuaren aurka izango da ondoko arrazoiengatik: a) ez datoz bat proiektuarekin, gehiegikeriatzat jotzen dutelako eta altuera jaisteko eta etxebizitzetatik urruntzeko eskatzen dutelako. b) Musika Eskola biltzen duen modulua kentzea proposatzen dute inguruan plaza bat egiteko. c) Proiektua gezurretan oinarrituta dago, Alkateak Telefónicaren eraikinari buruzkoak esandakoa esaterako. d) Proiektua iluna da; izan ere ez dute existitzen diren azterketetarako sarbiderik izan eta era berean, Gobernu taldea bideragarritasun azterketa egitearen aurka dago. e) Legez kontrakoa jotzen du proiektua sei fasetan banatzea lizitazio independenteekin, eta lortutako zenbatekoen helburu bakarra Bilkura eztabaidatik kanpo uztea delako, eta era berean, Bilkuraren Kontratazio Mahaia alde batera uzten da, udal talde politiko guztiak biltzen direnekoa. Negargarria deritzo talde Sozialistak kontrol lan horri uko egitea. Ondoren, Sektore Publikoko Legearen 74 artikulua irakurri du adierazteko txosten teknikoez ez dutela proiektuaren banaketa egiaztatzen eta kritikatu du duela 15 egun Alkatetzari eskatutako Idazkari Nagusiaren txostena luzatu ez izana. Amaitzeko, gogorarazi duenez, Herri Kontuan Euskal Epaitegiak 2003an egindako fiskalizazioan Getxoko Udalaren kontratuen banaketa jada salatu zuela.

lógicamente no pueden condicionar ni los programas de necesidades ni los elementos básicos del proyecto. Finaliza indicando que esta cuestión ha pasado más de siete veces por el Pleno municipal, sin que en ningún caso haya tenido votos en contra.

El Sr. Andrade indica que el grupo Popular se va a oponer al proyecto por las siguientes razones: a) no comparten el proyecto que estiman sobredimensionado y piden rebajar la altura y que se aleje de las viviendas. b) plantean quitar el módulo que acoge la Musika Eskola para que se genere una plaza en el entorno. c) El proyecto está basado en mentiras como las que ha manifestado el Alcalde en relación con el edificio de Telefónica. d) El proyecto se basa en un oscurantismo ya que no han podido acceder a estudios existentes que se ocultan y a la vez el equipo de Gobierno se niega a realizar un estudio de viabilidad. e) Estima ilegal dividir el proyecto en seis fases con licitación independiente, y que por las cuantías que resultan tienen como único objeto sustraer al Pleno del debate del mismo, y a la vez también se elude lógicamente la Mesa de Contratación del Pleno en la que están integrados todos los grupos políticos municipales. Lamenta que el grupo Socialista renuncie a esa labor de control. A continuación da lectura a parte del artículo 74 de la Ley de Contratos del Sector Público para indicar que los informes técnicos no justifican el fraccionamiento del proyecto y que critica que tampoco se haya emitido el informe del Secretario General que han solicitado a la Alcaldía ya hace 15 días. Finaliza recordando que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en la fiscalización que realizó el año 2003 ya denunció el

fraccionamiento irregular de contratos en el Ayuntamiento de Getxo.

Basanta jaunaren esanetan, ez dator bat proiektuaren dimentsionamenduarekin eta Musika Eskolaren kokapenarekin, ezta ingurumenarekiko egokitzapenarekin ere. Adierazi duenez, auzokideak ez daude ados eta hausnartu beharko litzateke, eta jarduera berezi hori kritikatu du, planteatzen den fasekako kontratazioari dagokionez, arrazoitu gabea.

El Sr. Basanta indica que no está de acuerdo con el dimensionamiento del proyecto ni con la ubicación de la Escuela de Música, ni encaje con el entorno. Manifiesta que existe una insatisfacción vecinal que debería hacer reflexionar, y critica esta actuación especial en materia de contratación de división en fases como se plantea, sin que se haya justificado.

Arregi jaunak adierazi duenez, txosten juridikoa duela 8 egun eskatu zen, eta prest dagoenean talde guztiei bidaliko zaie, eta Gobernu taldeak ez du zalantzan jartzen Bilkuratik pasatu beharra, izan ere legalitate kontua baita. Adierazi duenez, proiektua faseka banatzea kontu teknikoengatik izan da, behar bezala egiaztatutakoak eta ohikoak tamaina horretako obretan. Gogorarazi duenez, Alternatiba taldea proiektu hori etengabe lagundu du 2008 amaiera arte, talde Popularrak bezala.

